Platonen *Errepublika* liburuaren azalpena.

Orri hauetan Platonen *Errepublika* idazlan marduleko VII. liburua eskaintzen zaizu, horixe baita jorratu behar dugun testua. *Errepublika* hamar liburuz osatuta dago, eta egilearen pentsaeraren zenbait alditan dago idatzita. Dirudienez, Platonek hamarkada biren epea erabili zuen lan nagusi hau plazaratzeko, I. liburua K.a. 390ean sortu baitzuen.

Errepublika idazlanaren gai nagusia zuzentasuna edo justizia da, baina, dudarik gabe, Platonek horren inguruan eskaintzen duen ikerketa ezagutzari, metafisikari, etikari, pedagogiari eta politikari buruzko bere doktrinetan funtsatzen da.

Horrela, bi munduen arteko banaketaz mintzatuko zaigu Platon, bere ikuskera metafisikoa adierazita. Jakintzaren ezaugarriak, mailak eta eskurapen-tankerak ere azalduko dizkigu. Hiriaren geroari buruzko gogoetak ugariak dira, bestalde, eta, nola edo hala, idazki osoaren muinean aurkitzen ditugu. Horixe baita ikergairik azpimarragarriena: estatu zuzenaren antolaketaz egiten duen hausnarketa.

Errepublika, bestalde, elkarrizketa baten kontakizuna da. Kontalaria Sokrates bera da, eta behinola lagun batzuekin izandako solasketa «filosofiko» bat adierazten digu. Platonen lanen protagonista Sokrates da, baina horrek ez du esan nahi bere maisuaren doktrina azaltzera mugatzen denik. Platonek Sokrates ahotan jartzen ditu bere teoriak, maisuaren estilo filosofikoari begirunea agertzeko, eta norberaren diskrezioa erakusteko.

Jorratu behar dugun testua *Haitzuloaren mitoaz* hasten da (lehenbiziko hiru kapituluetan), eta bertan agertutako sinboloen interpretazioa ematen du (4. eta 5. kapituluetan). Irudi honi esker, V. liburutik datorren galdera nagusiari erantzun diezaioke, alegia, agintean jardun beharko duten pertsonen hezierari buruzkoa. Zientzien hierarkia zurruna aipatzen da hemen (seitik hamabira bitartean), filosofogaiek ikasi beharrekoa (dialektika, hain zuzen, 13. eta 14. kapituluetan), Estatua zuzentzeko adinako jakinduria eta prestutasuna erdiets ditzaten (15.-18. kapituluetan ikaskizun horiek noiz eta nola helaraziko zaizkien agertzen du).

Platonen *Errepublikaren* VII. liburua. 1.-18. atalak.

1

—Ondoren —esan nuen— irudika ezazu gure giza izaera, heziera eta hezierarik ezaren arabera. Kontu egizu, bada, sarrera luzea duen lurpeko bizileku bat, argitara zabalik dagoena. Bertan gizakiak umetatik bizi dira, zangoetatik eta lepotik lotuta. Halatan, geldirik daude, aurrerantz besterik begiratu ezin dutelarik, lokarriek ez baitiote burua jiratzen uzten. Haien atzealdean, urrutitik sute baten argitasuna atzematen da, eta gorago, sutearen eta atxilotuen artean, bide gora bat. Bidean barrena, ohartu beharko duzu hesia eraiki dela, titiriteroak ikusleengandik bereizteko jarri ohi denaren antzekoa, zeinen gainetik txotxongiloak agertzen baitituzte.

—Badakusat —esan zuen.

—Oraingo honetan, hesiaren altuera gainetik irudika itzazu denetariko tresneria daramatzaten gizon-emakumeak, eta giza zein abere estatuak harrizkoak, zurezkoak, denetarikoak gainditzen dituztenak. Eta pentsatzekoa denez, eramaileon arteko batzuk hizketan joango dira, eta beste batzuk isilean.

—Bai arraroa zuk deskribatutako irudia eta atxiloak —esan zuen.

—Gu bezalakoak —esan nuen—. Lehenengo eta behin, uste al duzu han egon direnek, beren buruez edo beren kideez, aurrez aurre duten leizean suak islatzen dituen itzalak izan ezik, besterik ikusten dutela?

—Nola —esan zuen— bizitza osoan zehar buruari mugitu barik eusten beharturik egon badira?

—Eta daramatzaten objektuez, ez al da berdin gertatuko?

—Zer besterik ikusiko dute, bada?

—Eta elkarrekin hitz egiteko aukera balute, ez al duzu uste hizketaldia aurretik igarotzen diren itzalei atxikiko litzaiekeela?

—Jakina.

—Eta presondegi hartan, atxilotuen atzetik dabilen norbait mintzo den bakoitzean, atzetik oihartzunik baletor, igaroz doan itzala mintzo dela ez al diote iritziko?

—Bai horixe, ala Zeus! —esan zuen.

—Beraz, dudarik ez da —esan nuen—. Horrelakoek gauzen itzalak benetakotzat hartuko dituzte.

—Besterik ezin da izan —esan zuen.

—Kontu egiozu, bada —esan nuen— zer gertatuko litzateke kateetatik askatu, beren zentzugabekeriaz osatu eta giza izaeraren arabera, jarraian azaldu bezala arituko balira? Haietari-

ko bat edo beste lokarrietatik askatu, bat-batean zutitu, lepoa jiratu, eta argitara begiratzera behartuko balitz, hau guzti hau egindakoan min hartuko balu, eta argi distiragatik lehen begiztatzen zituen itzalei oraingoan begiratzerik ez balu, zer erantzungo luke norbaitek esango balio lehengoak alferreko itzalak zirela, eta oraingo honetan benetakoetatik askoz hurbilago dagoela? Bestetik, iragan diren objektuak zer diren galdetuko balitzaie, ez al duzu uste aho bete hortz egongo litzatekeela, eta lehen ikusten zituenak oraingoak baino egiazkoagoak direla erantzungo lukeela?

—Askoz ere egiazkoagoak —esan zuen.

2

—Eta argiari berari begiratzera behartuko banu, ez al duzu uste begietan min hartuta alde egingo lukeela, erraz ikus ditzakeen objektuetara itzultzearren, honakoak zehatzagoak direlako ustetan?

—Hala da —esan zuen.

—Eta nor edo nork handik indarrez eramango balu —esan nuen— malda gogor eta latz hartatik gora behartuz, arrastaka eguzki argiraino heldu arte utzi barik, ez al deritzozu narraz eramanez gero atsekabetuko litzatekeela, eta behin argitaraino helduz gero, begiak argitan blai dituelarik, ez al duzu uste egiazko gauzetatik bat berari ere begiratu ezinean egongo litzatekeela?

—Horixe bai, oraingoz bederen, ezindurik legoke.

—Ene ustez, ohitu egin beharko luke, goialdeko gauzak ikustera ailegatu ahal izateko. Erraz modura ikusiko lituzkeen lehenengoak itzalak lirateke; ostean, uretan islatutako giza irudiak eta gainerako objektuenak. Ondoren, zerukoak eta zerua bera, ilargiaren zein izarren argitan gauez errazago begiztatuko lituzke, eguzkia eta ingurukoak baino hobeki.

—Jakina.

—Eta azkenik, nire ustetan, eguzkia bera den bezalaxe ikustatzeko moduan legoke, ez, ordea, uretan nahiz beste inon islatutako eguzkiaren irudia.

—Hala beharko luke izan —esan zuen.

—Ostean, eguzkiari dagokionez, ebatziko luke bera dela urtaroak eta urteak egiten dituena, mundu ikusgarria arautzen duena, bai eta beraiek begiztatzen duten ororen egilea ere.

—Bistan da —esan nuen— pentsamendu horietara helduko litzatekeela.

—Eta zer? Bere aurreko gelaz gogoratzean, baita hango zientziaz eta garai bateko espetxe kideez ere, ez al duzu uste zoriontsutaz hartuko lukeela bere burua aldatu izanagatiketa haietaz errukituko litzatekeela?

—Jakina.

—Lehen begira zituzten itzaletatik zeintzuk atzetik, zeintzuk aurretik igarotzen ziren beste inork baino zorrotzago eta hobeki barrundaturik, gertatuko dena igartzeko gai direnentzat sariak edota ohoreak baleude, uste al duzu omenduen bekaizkoa izango dutela, ala, Homerori gertatu bezala, ez al lukete bortitzago opatuko «nekazaria izanik beste gizon txiro batentzat lanean jardun» eta jasan ahala jasan, lehengo duda-mudako bizimodura itzuli baino?

—Hala uste dut nik —esan zuen— alegia, beste edozein biziera hasierakoa baino nahiago duela.

—Kontu egiozu orain honako honi —esan nuen—: berriro behera bueltatzekotan, lehengo lekura itzuliko balitz, begiak ez al litzaizkio itsutuko, eguzki argiari bat-batean alde egindakoan bezala?

—Bai horixe —esan zuen.

—Eta beti kateaturik egon direnekin, itzalak ozta-ozta begiztatzen dituenak, ohitzeko aldi luzea behar baitu, berriro mintzatu beharra balu, eta han goian egonik, begiak makaldurik dakartzala ikusita, barrukoek ez al liokete barre egingo, eta hara gora igotzea ez duela merezi esango? Eta inor askatzen eta igoarazten saiatuko balitz, hari oratzeko ahalbidea izanez gero, ez al lukete erailko?

—Noski —esan zuen.

3

Izan ere —esan nuen— honako irudi hau bere osotasunean aplikatu beharra dago, Glaukon adiskidea, lehenago esandakoari. Begiz ikusgarria den eremua presondegiarekin alderatu behar da, eta bertako suaren argia eguzki indarrarekin. Gora igotzea eta horko gauzak atzematea, mundu ulergarrirainoko arimaren igoerarekin alderatzen baduzu, nire iritzikoa izango zara, zuk ezagutu nahi duzun eran, nahiz eta Jainkoak soilik dakien egiazkoa den.

Azkenik, bada, hona hemen ene iritzia. Ulergarriaren munduan atzematen den azkena ongiaren ideia da, nekez atzeman ere. Behin susmatuz gero, gauzetan den alderdi zuzen eta eder guztien zergatia dela ebatzi behar da; beste aldetik, mundu ikusgarrian argia eta argiaren emailea sortu dituen eran, mundu ulergarrian egiaren eta ezagumenaren sortzailea dugu ongia, eta berau atzeman behar du bizitza pribatuan zein publikoan zentzunez jokatu nahi duenak.

—Ni ere zure iritzikoa nauzu —esan zuen— ulertu ahal dudan neurrian.

—Izan ere —esan nuen— hurrengo honetan ere arrazoia eman iezadazu: horretaratu direnek giza kontuetan nahasi nahi ez izatea ez da harritzekoa, osterantzean beren arimek goian egon nahi dute, ene iritziz zentzuduna baita lehen aipatutakoarekin alderatuz gero.

—Zentzuduna da, bai horixe —esan zuen.

—Eta zer? Oraindik gaizki ikusi eta inguruko ilunpetara nahikoa ohituta egon gabe, epaitegietan edo beste edozein lekutan horrelakorik sekula atzeman ez dutenekin bidezkoaren itzalei buruz eztabaidatzera behartuta balego, zuretzat, harritzekoa al da —esan nuen— jainkotiar izakien ikuskizunetik giza huskerien ikuskizunera igarotzean inor baldar eta barregarri agertzea?

—Ez da ez, inor harritzekoa —esan zuen.

—Beraz, zentzudunak gogoratu beharko du, bi erara eta bi zioagatik lausotu ohi direla begiak: argitik ilunpera eta ilunpetik argitara igarotzean. Behin pentsatuz gero arimari ere gauza bera gertatzen zaiola, norbait nahas-mahasean dagoela igarri eta ikuskarien muinari erreparatzen ez dakiela ikusiz gero, ez dio arinkeriaz barrerik egingo, eta bai pentsatuko bizitza argitsuago batetik etorririk, ohiturarik ezak itsututa ote dagoen, ala jakinezatik argi indartsuago batera etorrita gehiegizko argiak itsuturik dagoenentz. Halatan, lehenari zorioneko iritziko, eta bigarrenari errukia izango diogu, eta bigarren honetaz barre egin nahiko balu, argitasunetik etorritakoaz baino irrigaitzagoa litzateke bere barre-algara.

—Diozuna oso da zentzunezkoa —esan zuen.

4

—Beharrezkoa da, beraz —esan nuen— aurrekoa egia izatekotan, guk honela iriztea: heziera ez da batzuek erakutsi nahi duten bezalakoa. Dioten legez, nik uste, jakinduria ematen diote jakinduriarik ez duen arimari, begi itsuan ikusmena ipintzen duten bezala.

—Halaxe da, haiek dioten legez —esan zuen.

—Oraingo gorabehera honek erakusten digu —esan nuen— nork bere ariman duen ahalmenak, ikasteko ahalbideak, alegia, jaio diren gauzakietatik alde egin behar duela, arima osoosorik delarik, begia ilunpetik argitara gorputz osoarekin batera itzuli den moduan, harik eta izatea, bai eta izatearen alderdirik distiratsuena ere, ongia kasurako, atzemateko gai izatera ailegatu arte, begia ilunpetik argitara bihurtzeko, ezta.

—Bai, hala da.

—Hortaz —esan nuen— heziera honelakoa da: adimena aldatu eta zuzentzeko biderik errazena eta eraginkorrena bilatzeko trebezia, ez, bada, ikusmena ezartzeko, baizik eta ikusmenaz hornituta izanik, behar den lekurantz biratzeko eta begiratzeko.

—Hala dirudi —esan zuen.

—Eta gainerako ahalmenak, arimarenak, baliteke gorputzezkoen tankerakoak izatea, zeren hasieran egon ez arren, ariketaz eta ohituraz geroago sortuak izan baitaitezke; ezagumenari dagokionak, aldiz, jainkozkoago dirudi bere indarra egundo galtzen ez duelako, on eta mesedegarri edo txar eta kaltegarri suertatuz, nola eramaten den. Ez al zara ohartu bihozgabeko eta burutsuek zein zorrotz jokatzen duten, eta zein argi burutzen duten egin nahi dutena, ez baitute ikusmen ahulik, azken batean gaiztakerien eskupean dagoelarik, zenbat eta burutsuago orduan eta handiagoak izango dira arimak egingo dituen bihurrikeriak.

—Ohartu ez naiz, ba —esan zuen.

—Bada —esan nuen— sabelkoikeria eta abarreko gurariak, berunezko bolak bezala arimaren begirada beherantz bihurturik dutenak txikitatik kimatu edo ebaki izan balira, halako atseginetatik arima askatuta, egiarantz begira egon balitz, gizon-emakumeen beraien arimak argiago ikusiko luke, oraingo honetan ikusten duena begiratu beharrean.

—Zentzunezkoa da —esan zuen.

—Eta zer? —esan nuen— esandakoaren arabera, ez al da zentzunezkoa pentsatzea heziera gabeak, egiatik aldenduak, ez direla inoiz egokiak izango hiria gobernatzeko, ez eta azkenera arte ikasten dihardutenak ere? Batzuek, bakarrean edo taldean, beren jokabidea hara bideratzeko, bizitzan jakineko helbururik ez dutelako, eta bestetsuek zorionekoen irletan daudelakoan, ez baitute horretan (politikan) jardungo.

—Egia da —esan zuen.

—Hortaz, gure zeregina da —esan nuen— hiri sortzaileona alegia, onentsuenak ikasketa hauetara bultzatzea, lehen esan baitugu bikaina dela, eta ongia ikus dezaten eta aipatutako igoera hura egin; behin igota, ikusmenaz gozatuz, bere eskuetan jartzen dena ez zaie onartuko.

—Eta zer ote da?

—Han goian geratu —esan nuen— eta berriro behera atxilotuengana joan nahi ez izatea, ez eta beraien lankide eta ohorekide izateko nahia ere ez zaie eskura jarriko, ohoreak gutxi zein asko balio izanik ere.

—Orduan, bada —esan zuen— kalte egingo al diegu, eta bizitza txarragoa emango, hobeto bizitzeko aukera izanik?

5

—Adiskide maitea, berriro ahaztu duzu —esan nuen— legeari ez zaiola interesatzen egundoko zoriontasunaz gozatzen duen gizatalderik egotea; osterantzean, hiri osoan zoriona zabaltzen ahaleginduko da, eta konbentzituta edo behartuta hirikideen artean bizikidetasuna ere sartzen, bakoitzak taldearen mesedetan eman ditzakeen laguntzak emanaraziz. Legeak berak tankerako gizon-emakumeak hezten ditu, ez baina, norberak nahi duen eran jarduteko, baizik eta estatuaren batasuna lortzeko asmotan.

—Bai hala da —esan zuen— ahaztuta nuen.

—Kontu egizu —esan nuen— gure artean dauden filosofoei ez diegula kalterik egingo, ordea, hitz zentzuzkoak erabiliz behartuko ditugu besteen ardura eta zaintza har dezaten. Beste hirietan dauden beren gisako hirikideak hiriko zereginetan parte hartu ez izana ulertzeko da, nor bere kasa hezten baita, eta bere heziera inori zor ez dionak ez du ezer ordaindu beharrik. Horrez gainera, adieraziko diegu guk sortu ditugula, beren onerako eta gainerako hirikideen onerako, erlauntzetan bezala, buruzagiak eta erregeak izan daitezen, beste hirietakoak baino hobeki heziak, filosofia eta politika batera jar dezaten. Izan ere, bananbanan zuen kideen bizilekura jaitsi eta ilunetan ikusten ohitu behar duzue. Behin ohituz gero, barrukoek baino mila aldiz hobeto ikusi eta ezagutuko duzue irudi bakoitza zer den, zuzena, ongia eta ederra egiatan ezagutu baitituzue. Hau honela, gure hiria egunaren argitan biziko da, eta ez ametsetan, gaur egun gehienak bizi diren moduan, huskeriak direla eta ez direla, edota agintea lortzearren on handia bailitzan, borrokan elkarrekin ari dira età. Ene ustetan, egia, aldiz, honakoa da: agintari izango direnak agintea eskuratzeko grinan ez dauden hirietan bizierarik onena izango dute, beste inon baino istilu gutxiagorekin, eta bestelako agintariak dituen hirian bestela gertatuko da.

—Ezin uka —esan zuen.

–Uste al duzu hau entzunik, ikasleek ez dutela gure esana beteko eta txandaka dagokien auzolanari uko egingo diotela, ideia hutsen alorrean elkarrekin bizitzearren denborarik gehiena?

—Ezinezkoa da —esan zuen— gizon-emakume zuzenak izanik, gauza zuzenak aginduko dizkiegu eta. Hala ere, haietariko bakoitzak ezin ukatutzat hartuko du gobernua, hirietan han-hemenka agintea izan ohi dutenek ez bezala.

—Bai ba —esan nuen—. Agintea izango dutenei gobernariarena baino bizimodu hoberik eskaintzeko parada baduzu, baliteke zuk ongi gobernaturiko hiria izatea, benetako aberatsek gobernatutako hiri bakarra izango baita, ez urretan aberatsa, zoriontsu izateko oparo aberastu behar denaz baizik: bizikera on eta zentzunezkoa. Politikan jardungo duten ondasunzaleak etekinak harrapatuko dituztelako ustetan politika zereginetara badatoz, ez da ezer onik. Agintea borroka-toki bihurtzen denean, borrokaldiak beraiek eta beraien hiria hondatuko ditu.

—Bai horixe —esan zuen.

—Benetako filosofoaz aparte, ezagutzen al duzu zeregin politikoa gutxiesten duen beste inor?

—Ez, ala Zeus! —esan zuen.

—Ez da komeni gobernu lanetara zuzentzea agintea gutiziatuz, bestela, aginte egarri direnak elkarren aurka borrokatuko dira.

—Zelan ez?

—Nortzuk behartuko dituzu hiriaren zaintza bere gain hartzera, Estatuaren aginteraz ikasienak izateaz gainera, beste ohore batzuk merezi eta politikoarena baino bizimodu hobea daramatenak izan ezik?

—Beste inor ere ez —esan zuen.

6

—Gauzak horrela, aztertuko al dugu nolako heziera eman eta nola aterako ditugun argitara, beste batzuk ere Hadesetik Jainkoenganaino igo ziren bezala?

—Jakina! —esan zuen.

—Antza denez hau ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, baizik eta gauetik benetako egunera, izatera bertara bihurtzea, egiazko filosofia den hori.

—Hain zuzen ere.

—Ez da aztertu behar jakintzetatik zeinek duen halako indarra?

—Noski bada.

—Izan ere, zein izan daiteke arima jaio denetik betiko izatera erakartzen duen jakinduria? Honako hau bururatzen zait. Ez al duzu adierazi gaztetan hauek ezinbestez guda atletak izan behar zutela?

—Hala da.

—Ondorioz, bilatzen dugun jakintzak honakoa izan behar du, aurrekoa izateaz gainera.

—Zer, bada?

—Guda gizonentzat alferrekoa ez izatea.

—Beharrezkoa da —esan zuen— ahal bada bederen.

—Lehen lehenik soinketaz eta musikaz heziko ditugu.

—Horixe —esan zuen.

—Soinketari dagokionez, jaio eta suntsitzen denari ezartzen zaio, gorputzaren hazieraz eta gainbeheraz arduratzen da eta.

—Hala dirudi.

—Orduan ez al da izango bilatzen ari ginen jakintzagaia?

—Ez, ez da.

Musika izango al da, hasieran deskribatu dugun eran?

—Gogoratzen duzunez, musika soinketaren osagarria besterik ez da: zaindariak ohitura bidez hezten ditu, harmoniaz baliatuz halako proportzioa ezartzen die, ez, ordea, ezagutza, erritmoaren bidez eurritmia; eta kontakizunei datxekionez —jarraitu zuen esaten—, egiazkoek zein alegiazkoak beste ezaugarri batzuk erakusten zituzten, hauen erara. Baina zuk nahi bezala irakasten duen jakintzarik ez zegoen bertan.

—Zehaztasun handiz gogoratzen duzu —esan nuen—. Bada, izan, ez zuen ezer ez. Hortaz, Glaukon adiskide, zein izan dai-

teke bila zabiltzan jakintza? Guk deritzogunez, arteak arbuiagarriak dira.

—Jakina! Musika, soinketa eta arteaz gainera zein zientziarik gelditzen zaigu, dagoeneko?

—Hiru horiek alde batera utzita, beste zientzia bat aurkitzerik ez badugu, har dezagun guztietara hedatzen dena—esan nuen.

—Zein ote?

—Adibide baterako, lehenengotan ikasi beharrekoa, argudiaketa eta antze guztiek erabiltzen dutena, hain da orokorra.

—Zein, gero? —esan zuen.

—Ohikoa —esan nuen— bata, bia eta hirua ezagutzen dituena. Azken batean, zenbakia eta kalkulu izena jarri diot nik. Ezagupide eta antze guztiek ez dute horretaz baliatu behar, ala?

—Jakina —esan zuen.

—Zientzia militarrak berdin jokatzen du, ez ala? —esan nuen.

—Izan beharko —esan zuen.

—Izan ere, Palamedesek bere tragedietan behin eta berriro agertzen digun Agamenon erabat barregarria da. Berak dioenez, zenbakiak berorrek asmatu eta gudarosteari lekua ezarri zion Ilionen aurrean, itsasontziak eta gainerakoak ere berak zenbatu zituen. Dirudienez aurretik zenbatzen zekien inor ez ei zegoen, eta Agamenon berak ez zekien ez eta zenbat oin zuen ere, ez baitzekien kontatzen. Nolako buruzagitzat duzu hori?

—Hau egia balitz, zeharo bitxia —esan zuen.

7

—Gerra-gizonarentzat ezinbestez jakin beharreko ezagupidea, zenbaketa eta kalkulua ditugu, hala baderitzozu.

—Beste edozer baino gehiago —esan zuen— armadako antolaketaz zertxobait ulertu nahi izatekotan, eta are gehiago gizalegekoa izateko.

—Beraz, nire iritzikoa zara jakintzagai honi dagokionez?

—Zer bada?

—Bilatzen ari garen horietako bat izan daiteke, ezagutzara daramana, nahiz eta izaterantz erakartzeko guztiz egokia den, inork ez du behar bezala erabiltzen.

—Zer esan nahi duzu? —galdetu zuen.

—Nik deritzodana erakusten saiatuko naiz —esan nuen—. Sailkatuko ditudanak, guk aipatutako helmugara bideratzeko gai ote diren esaidazu, nik esan bezala argiago den ikus dezagun.

—Ekin —esan zuen.

—Kontu egizu —esan nuen— zentzumenaren objektuen artean, batzuek ez dute adimena ikertzera bultzatzen, zentzumenak berak argi asko ebazten baititu; beste batzuek, berriz, jo eta ke ikertzera daramate, zentzumenek ez baitute ezer taxuz ebazten.

—Bistan dago —esan zuen— urrutitik ikusitakoak eta itzala duten margoak dituzula gogoan.

—Nik esandakoa ez duzu guztiz ulertu —esan nuen.

—Zer adierazi nahi duzu? —esan zuen.

—Ikertzera ez daramatenak —esan nuen— bi datu aldi berean kontrajarrita jotzen ez dituztenak dira, eta aurkako jotzen dituztenak daramatenak dira. Bai urrutitik bai hurbiletik ikusita, zentzumenak ez du ebazten hau ala kontrakoa denentz. Hala ere, diodana hobeto ulertuko duzu, era honetara. Hona hemen hiru atzamar: erpurua, erakuslea eta nagia.

—Ederki —esan zuen.

—Kontu egizu hurbiletik begiratzen ari natzaiela; haiei buruz honela deritzot.

—Zer?

—Haietariko bakoitzak atzamar bat dirudi, bazterrean zein erdian egotea bost axola zaio, zuria zein beltza, lodia zein mehea, edota beste edozein tankera batean ere. Gizajende gehienaren arima ez dago behartuta adimenari galdetzera atzamarra zer den; ikusmenak inoiz ez baitu atzamarrean atzamarraren aurkakorik atzematen.

—Ez, izan ere —esan zuen.

—Hortaz —esan nuen— ohikoa denez gero, gauza batek ez du adimena pizten.

—Bistakoa da.

—Eta zer? Txikia ala handia ote den ebazteko, ikusmenak argiro bereizten al ditu, erdian ala aldamenean dagoenentz gogoan hartu barik? Eta gauza bera ukimenarekin lodia ala mehea, biguna ala gogorra den atzemateko. Gainerako zentzumenek ere ez al dituzte gaizki adierazten ikuspegi horiek? Zeren eta biguna den ebatzi beharra duenak ere gogorra den asmatu behar baitu, eta ondorioz arima ohartarazten du gauza bera aldi berean gogorra eta biguna dela.

—Hala da —esan zuen.

—Hori dela eta —esan nuen— halakoetan nahitaez arimak aho bete hortz galde egiten dio bere buruari gogorra zer ote den, gauza bera gogorra eta biguna dela esaten baitu, eta arina zer den, zentzumenak adierazten baitu arina astuna dela eta astuna arina.

—Bai horretan —esan zuen— horra hor arimarentzako adierazpen bitxiak, argibidea eskatzen dutenak.

—Zentzunezkoa da —esan nuen— honelakoetan arimak kalkulua eta adimenari dei egitea, denak batera ikertzeko asmotan iragarritakoak banako bati ala biri dagozkien.

—Nola ez?

—Eta bi bezala agertuz gero, ez al da haietariko bakoitza azalduko banako eta bereizitzat?

—Bai.

—Esanak esan, haietariko bakoitza bakarrekoa bada, eta biak bilduta ere bi baldin badira, biak bereizitzat hartuko ditu, bestela, bereiziak ez balira ez lituzke banako bi legez, bakarreko legez baizik.

—Baiki.

—Hala delarik, ikusmenak handia eta txikia atzematen ditu, ez baina bereizirik, nahasian baizik. Bai, ezta?

—Bai, ba!

—Eta halako nahasmendua argitzeko, handia eta txikia bereizirik, eta nahasian, antzematera behartuta dago adimena, ikusmena ez bezala. Ados?

—Ederki.

—Honako honetatik abiatuta, txikia eta handia zer ote diren galdera egiten dugu, ez hala?

—Horrelaxe da.

—Era honetara, ulergarria batetik eta ikusgarria bestetik bereizten ditugu.

—Ezin uka!

8

—Beraz, adimenaren eragileak eta ez eragileak arestian antzemandakoan, horixe aditzera eman nahi nuen, bai eta zentzumenetatik sartutako datuak ere elkarren aurkakoak izanez gero, adimenaren bultzatzaileak direla, bestela ez dute gogoetarik sorrarazten.

—Orain ulertzen dut, eta neu ere ados nago zurekin —esan zuen.

—Hortaz, zenbakia eta unitatea zer-nolakoak dira?

—Ez dut argi —esan zuen.

—Esandakoaren arabera erabaki ezazu. Unitatea, antzematen bada, edota zein edo zein zentzumen bidez argiro eta bere baitan jasotzen bada, ez du esentzietara erakarriko, atzamarraz lehen esan bezala; berarekin batera aurkako igarpenik asmatuko balitz, aldiz, nork ebatziko beharrezkoa izango da, eta ondorioz, ezbaian egonik, ikertzeari emango dio, unitatea bere jatorrian zer den galdetuz. Alde honetatik, unitatearen atzemaketa izaterantz arima bihurtu eta bideratzen duen horietakoa izango dugu.

—Aurreko hau —esan zuen— neurri handi batean unitatearen ikuskizunarekin gertatzen da, gauza bera, banako eta mugagabeko aniztasun lez atzematen baitugu.

—Unitatea honelakoa bada —esan nuen— ez al zaio berdin gertatuko gainerako zenbakiei?

—Hala da.

—Horregatik, egiarantz zuzentzeko baliotsuak dira biak.

—Bai, zeharo egokiak.

—Ondorioz, ikaskizunok, bilatzen ari garenetakoak dira. Izan ere, jakituria horien ikaskizuna beharrezko zaio soldaduari, taktika dela eta, eta filosofoari sorreraren alorretik jalgi eta esentziekin biltzeko, lortu ezean, ez bailitzateke sekula kalkulatzaile edo arrazoiduna izango.

—Hobe ez —esan zuen.

—Gure zaintzailea soldadua eta filosofoa al da?

—Bai horixe.

—Ondorioz, Glaukon, honako jakintzagai hau legez jarriko dugu indarrean, eta hirigintzaren goreneko erantzukizuna izango dutenak konbentzituko ditugu kalkuluari hel diezaioten, eta horretan saiatzeko ez azalean, baizik eta sakonean, zenbakien izatea adimen hutsez atzeman arte. Ez dute horretan jardungo tratulari eta saltzaileak bezala, salerosketei begira, gudari baino, eta sortzetik egiara eta esentziara bilakatze erraza egiteari begira ere zenbakiak landuko dituzte.

—Egia biribila —erantzun zuen.

—Bada —esan nuen— zenbakien zientziaz ari garelarik, ohartzen naiz alderdi anitzetik zein berezia eta mesedegarri den guk lortu nahi duguna lortzeko, baldin eta ezagumena zabaltzeko lantzen bada, eta ez tratuetarako.

—Zergatik? —esan zuen.

—Arestian esandakoagatik: arima oso gorantz eraman eta zenbakiez hausnartzera behartzen duelako, eta ez du onartzen inork gauzaki ikusgarri edo ukigarri duen zenbakirik gogoan hartzerik. Jakin badakizu, hala uste dut nik, gauza hauetan jakitunak unitatea banatzen saiatzen denaz barre egin eta baztertu egingo duela. Are gehiago, zuk banatzen baduzu, beraiek biderkatuko, unitatea zenbait saileko batura gisa agertuko den beldur direlako.

—Arrazoia —baietsi zuen.

—Zer uste duzu, Glaukon? Norbaitek galdetuko balio: Bai gizon-emakume bereziak! Zein motatako zenbakiak dira eztabaidan dituzuenak, non unitateak zuek esan bezalakoak baitira, alegia, denak elkarren berdinak, elkarrekiko bereizkuntza txikienik ere ez dutenak, eta bere baitan atalik gabeak? Zer uste duzu erantzungo dutela?

—Pentsatu besterik ez duten gauzak direla eta pentsatu ezik maneiatzerik ez dutela.

—Ene adiskide, honelako jakinduria —esan nuen—, egiatan beharrezkoa zaigu, adimena erabiltzen behartzen baitu arima, jatorrizko egia lortzeko.

—Egiatan —esan zuen— bai horixe.

—Eta zer? Ohartu zara senez kalkulatzaile trebeak direnak, era berean zientzia guztiak edo ia gehienak ulertzeko arintasun aparta dituela; eta pertsona traketsak ikasgai honetan heziz gero, behinik behin, lehen baino azkarrago bihurtzeko atarramentua lortzen dela.

—Bai horretan —esan zuen.

—Ikasten eta horretan jarduten duenaren ikuspegitik, honako hau baino ikaskizun neketsuagorik aurkitzea ez zaizu erraz izango.

—Ez, horixe.

—Hauengatik guztiengatik ez da alde batera utzi behar, onentsuenen hezieran, aldiz, ezarri beharra dago.

—Zure iritzikoa nauzu —esan zuen.

9

Orain artekoa, bada, esan gabe doa, eman dezagun ziurtzat. Jarraian doan bigarrengo elea aztertu behar dugu, zertan zaigun interesgarri.

—Zein? —esan zuen— geometria al da zuk diozuna?

—Horixe bera —esan nuen.

—Guda kontuak geometriari lotzen zaizkiola gogoan izanik, bistan da axola zaigula —esan zuen—. Kanpamenduak kokatu, lekuak hartu, gudarosteak batu eta banatzeko orduan, bai borrokaldietan bai ibilaldietan gudarosteek burutzen dituzten beste ekintzetarako ere geometriaz jantzita dagoenak eta ez dagoenak ez du berdin jardungo.

—Hala ere —esan nuen— halakoak egiteko, geometria eta kalkulu atal txiki batekin nahikoa litzateke. Ordea, lehen adierazitako helburura horretaratzeko, hau da, ongia errazago antzemateko asmoz, geometriaren atalik behinena da oraingo honetan aztertu behar duguna. Den izakirik zoriontsuena asmatzeko arima bihurtzen duena, kosta ahala kosta antzeman beharrekoa, horretarako baliotsua da eta.

—Ongi da —berretsi zuen.

—Azken batean, esentzia ikustera behartzen badu, mesedegarria da, eta sorrerakoa ikustera behartzen badu ez da mesedegarria.

—Egiatan, hala da.

—Beraz, hona hemen, geometriaz dakien orok, gutxi jakinik ere, ezbaian jarriko ez duena: honako zientziarekin gertatu ohi da hortan jarduten dutenek esandakoaren aurkakoa.

—Zelan? —esan nuen.

—Beren hizkuntza barregarria da oso, azalpenak ematean, jardunean egongo balira bezala mintzatzen baitira geometrialariak, ekintzari begira, alegia. Hots handiko mintzoak erabiltzen dituzte, besteak beste, laukiak egiten dituztela, luzatu, gehitu eta honelako asko. Dena den, ene ustez ezagutzarako landutako ikaskizuna da.

—Bai horretan —esan zuen.

—Jarraiko honetan ere ados egongo zara, ez ala?

—Zertan?

—Ez behin jaio, behin hiltzen dena, baizik eta betiko izatea duena ezagutzeko lantzen dela.

—Ezer gutxi axola zait zurekin bat egitea —esan zuen— izan ere, geometria betiko izatearen ezagutza da.

—Beraz, adiskide jatorra, arima egiarantz erakarriko du, eta gogamena filosofia gisara heziko, gorantz daramana ez beherantz, gaur egun ez bezala.

—Jakina —esan zuen.

—Horregatik, zure hiri ideal horretako kideei aginduko diegu ez dezaten geometria alde batera utz, bere onura osagarriak ere ez baitira makalak.

—Zein? —esan zuen.

—Gudari dagokionez zuk aipatutakoez gainera, beste edozein jakintza esparru bat aditu ahal izateko, geometriaz ikasiaren eta ikasgabearen artean alde handi samarra da.

—Bai, ala Zeus!, aldea izugarria da —esan zuen.

—Honakoa, gazteentzako bigarren jakintzagai ezarriko al dugu?

—Bai horretan —esan zuen.

10

—Hirugarren astronomia ezarriko al dugu? Ala, ez al zara nire iritzikoa?

—Baiki —esan zuen— zeren hil eta urteko sasoiak ongi asko bereizteko gauza izanik, nekazariarentzat eta itsasgizonarentzat ez ezik, gudariarentzat ere jakingarria baita.

—Barregarria zara —esan nuen— herri xumearen beldur zarela dirudi, baliogabeko jakintzagaiak ezartzen dituzulakoan. Haatik, sinesgaitza dirudien arren, ikasketa hauen eraginez, beste eginkizunetan itsutu eta hondatuta dagoen horretan, adimena garbitu eta piztu izana ez da, ez, kontu makala. Egia ezagutzeko gai den bakarra izanik, hamar mila begik baino gehiago arimak merezia du onik ateratzea. Horrekin bat datozenek ezin neurtuzkoa iritziko diote zure berbaren zuzentasunari; aldiz, horretaz ohartu ez direnek pentsatuko dute, zuk diozuna hutsala dela, aipatu ikasketek onura aipagarririk lortzen ez dutelakoan. Honezkero kontu egizu, bada, norekin

mintzatzen zaren, edo beharbada ez batzuekin ezta besteekin hitzik egiten ez baduzu, ez ote zauden zuretzako hitz egiten ari, argudiaketak zure buruari zuzentzen dizkiozularik, beste inork ere horretatik etekinak jaso ditzakeen arren.

—Horixe da nahiago dudana: hitz egin, galde egin eta erantzuna eman, nire mesederako batez ere.

—Orduan —esan nuen— atzera egizu, geometriaren ostekoaz pentsatzean okertu egin gara eta.

—Zer uste genuen, ba? —esan zuen.

—Azalera ostean —esan nuen— trinkoa hartu dugu, mugitzen dagoena, bere baitan hartu beharrean. Zuzenekoa da, nik uste, bigarrenaren ostean hirugarren ikuspegitik gogoan hartzea, hau da, kuboa batetik eta sakonera duena bestetik.

—Halaxe da —esan zuen—. Hala ere, kontu hori oraindik orain, argitu gabe dago.

—Aurrekoari lotuta, arrazoia bikoitza dela eta ez dela —esan nuen— ikasketa horiek, berez zailak, behar beste estimatzen dituen hiririk ez dagoenez, ikerkuntza-lana makala izan ohi da, eta beste aldetik, ikerlariek zuzendaria behar dute, bestela ez dira gauza ezer asmatzeko. Halako zuzendari nekez izaten da, eta izatekotan ere, gaur egungo egoeran ez dute bere esana beteko, hain dira arroak ikertzeko gauza direnak. Bestela, honakook goretsita, zuzendariari laguntzen diona, hiri osoa balitz, bere esanetan jarriko litzateke, jarraian eta kementsu ikertzen jarri ere. Halatan, bere izaerari dagokionez gauzok argituko lirateke, zeren eta, onuragarri zertan diren ohartu barik, herri xeheak zein ikerlariak ere gutxietsi eta oztopatzen dituenean, oztopoak oztopo, aurrera egiten baitute, bere erakarpen handiari esker. Beraz, ez litzateke harritzeko izango argitan azaltzea.

Izan ere, bere erakarpena izugarria da. Berriz esaidazu argiago, arestian zuk aipatutakoa. Oker ez banago, denen gainetik azalen ikasketa jartzen zenuen, geometria, alegia.

—Bai —esan nuen.

—Ondoren —esan zuen— bere ostean astronomia jartzen zenuen hasiera batean, gero atzera egin zenuen arren.

—Arinegi azaldu nahiak motelago aurrera egitera behartzen naueta. Ostean, trinkoaren azterketa badator ere, alde batera utzi nuen, alferreko eztabaidak sortzen baititu. Geometriaren ondoren, astronomiaz mintzo naiz, hau da, higiduraz sakoneran.

—Ongi diozu —baietsi zuen.

—Hortaz, astronomia laugarren ikasketa gisa jar dezagun, kontuan hartuta, hiriak hortaz arduratu nahi duen bezain laster, alde batera utzi dugun jakintzari helduko diola.

—Zentzuzkoa da —esan zuen— astronomia astunegi goratu dudalako, duela gutxi errieta egin didazun lez, zuk aintzat hartuko duzun ikuspegitik zureganatuko dizut. Dudarik gabe, guztiontzat agerikoa da arima gora begiratzera behartzen duela, eta hemengo gauzetatik hangoetara daramala.

—Baliteke —esan nuen— guztiontzat agerikoa izatea, baina niretzat ez. Ez nauzu iritzikoa.

—Zein iritzitakoa zara? —esan zuen.

—Egungoek bere filosofiara horretaratzeko, lantzen duten eran, behera begiratzera behartzen dute oso.

—Zelan diozu? —galdetu zuen.

—Nire buruan dudan goialdeko izateen ezagutzari lotuta oso da bitxia duzun burutapena. Demagun, gora begira, sabaiko apaingarriei so eginez, norbaitek zerbait atzematen duela. Adimenez, ez begiz, atzematen duela uste duzu. Baliteke zuk zuzen iriztea eta nik zentzugabe; baina nire aldetik, arima gora begiratzen jartzen duen jakintzarik ez dago, izateaz eta ikusi ezinekoaz diharduenaz landa.

Nor edo nork ezagutu nahi duena zentzumenez ikusgarria den zerbait baldin bada, hala aho zabalik gora begiratuz, nola aho itxita behera begiratuz, ez du sekula ezagutuko, horrelakorik ez baita ezagutzaren ikergaia. Halatan, bere arimak ez du gora begiratzen behera baizik, ezta itsasoz edo lurrez igerian gora begira balego ere.

11

—Ongi merezia dut —esan zuen— arrazoi osoz errieta egiten didazu. Baina, ohikoa ez bezala, nola ikasi behar da astronomia, bilatzen dugunari dagokionez bere ezagutza etekintsua suerta dadin?

—Jarraian azaldu bezala —esan nuen—: zeruan bordatuta dauden apaingarriok daudenik ederrenak eta bikainenak direla pentsatu behar dugu alde batetik, baina beste alde batetik, materiazko osagaiez egokituta daudenez gero, benetako ereduak baino kaskarragoak dira erabat. Hala nola, egiazko arintasuna eta gelditasuna, arrazoimenaren eta adimenaren ikuspegitik atzemangarriak baitira, baina ez ikusmenarentzat.

—Inola ere ez —esan zuen.

—Beraz —esan nuen— zeruko apaingarriez baliatu behar dugu, ereduaz bezala, ikasi beharrekoa uler dezagun, Dedalok edota beste margolari jaio batek bere eskuz bikain marraztutako irudiak aurkitu bagenitu bezala. Izan ere, geometriaz jantzita dagoen edonork, halako egintza ikusitakoan, ezin hobeto landuta dagoela aitortuko luke. Halere, zentzugabekotzat hartuko nuke egintza horretan egiaren berdintasuna, bikoiztasuna edo beste edozein proportzioarena bilatzeko asmoarekin ikasten jardutea.

—Zentzugabe izango ez da, ba? —esan zuen.

—Benetan astronomo denari —esan nuen— ez al zaio gauza bera gertatuko izarren mugimenduari begiratzean? Esan gabe

doa, zeruaren egileak ahalik eta edertasun gehiena zeruan biltzea lortu duela. Egunaren aldean gauaren iraupen aldetik, nahiz hila, urtea zein izarren eta eguzkiaren aldetik, goputzezkoak diren lez, aldaketarik txikienik gabe beti berdinak direla pentsatzen duena ez al du arrarotzat joko?

—Hala deritzot nik ere bai —erantzun zuen— zuri entzun bezala.

—Halatan, astronomia geometria bezala landuko dugu, zeruko apaingarriei erreparatu barik, benetako astronomo izatera heldu nahi badugu eta gure arimaren alderdi adimentsua sustatu nahi badugu, alferrekoa izan ez dadin.

—Egia esan —esan zuen— astronomoek gaur gaurkoz burutzen dutena baino dezente lan handiago agintzen duzu.

—Horrez gainera —esan nuen— legegile garen aldetik, beste jakintzagaietan bezalako aginduak ezarriko ditugu.

12

—Beste jakintzagai onuratsurik gogoratuko al didazu?

—Ezin dut —esan zuen— oraingoz behintzat.

—Uste dudanez —erantzun nuen— mugimendua ez da bakarra, askotarikoa baino. Jakintsuak, akaso, denak izendatu eta bereiziko lituzke, dena den guri agerian azaltzen zaizkigunak bi dira.

—Zein dira?

—Bata astronomia da, eta bestea hari dagokiona.

—Zein da?

—Agi denez, begiak astronomiaren higidurei begira egokitu diren lez, entzumena soinu harmonikoei begira egokitu da; pitagorikoek diotenez eta guk ere berdintsu, biak, astronomia eta musika, alegia, ahizpak dira, ene Glaukon.

—Nola diogu, bada?

—Horrelaxe —esan zuen.

—Hortaz —esan nuen— haiei galde egingo diegu zer deritzoten honetaz eta besteaz, betiere gure printzipioari eutsiz.

—Zein asmo?

—Duela gutxi astronomiaz ebatzi dugun bezala, heziko ditugunek ez diote alferrik ikasteari ekingo, ailegatu beharreko helmugara ezinbestez ailegatu barik. Ez al dakizu astronomiarekin harmoniarekin bezainbatean aritzen direnik? Hau da, soinuak elkarrekin duten neurria hartzen ahalegintzen dira, halatan, astronomoek bezala, alferreko lana egiten dute.

—Bai horixe, ala jainkoak —esan zuen— zein barregarria den haien berbaroa. Belarriak tente jartzen dituzte albokoen soinuak entzun nahirik. Bi soinu artean beste bat, den bitartekorik txikiena entzuten dutela batzuek dioten eran; beste batzuek, aldiz, uste dute lehen ere kordak berdin entzun direla. Bai batzuek bai besteek entzumena adimena baino nahiago dute.

—Uste dudanez —esan nuen— kordak astindu eta jipoitzen dituen gizajende inozoaz ari zara. Azkenean, irudi edo kontakizun hau alde batera utziko dut, gehiegi luzatuko bailitzateke, kordak plektroarekin nola jotzen dituzten, eta eskatutako soinuak ez badituzte jotzen, joleei inon direnak aurpegiratzen dizkietela adieraziz gero. Baina ez naiz haietaz mintzatzen ari, baizik eta harmoniaz galderak egin asmo dugun horretaz. Besteek astronomoek bezala jokatzen dute. Hots, entzumenez sumatzen dituzten soinuetan zenbakiak bilatzen dituzte, baina ez dute arazoez haraindira jotzen, zenbaki harmoniatsuak zein eta zergatik diren aztertzen.

—Hori egiteko erraldoia! —esan zuen.

—Dena dela, etekintsua —esan nuen— ederraren eta ongiaren ikerketarako, nahiz eta beste asmorekiko alferrik den.

—Bistan da —esan zuen.

13

—Uste dudanez —esan nuen— aipatutako jakintza hauek guztiak ikasiaz, denen artean dauden barneko lotura orokorrak aztertzeko asmoa baldin badugu, bilatzen dugun xedearri lotuta guztiz onuratsua litzateke, bestela hutsala.

—Zure iritzikoa nauzu —esan zuen— hala ere, bai luze eta neketsua eskatzen duzun lana, Sokrates.

—Ez al dakizu hauek guzti hauek egiatan ikasi beharreko doinuaren preludioa besterik ez direla?

Jakintza hauetako adituak honezkero ez dira dialektikoak.

—Ez, ala Zeus! —esan zuen— topo egin ditudan gutxi batzuk izan ezik.

—Orduan, bada —esan nuen— jakingarri bakoitzaren zentzuaz galderarik zein erantzunik emateko gauza ez dena, zure iritziz, jakin beharrekoaz ezer jakingo al du?

—Ez dut uste —esan zuen.

—Horregatik, Glaukon —esan nuen— ez al da berau dialektikak gauzatzen duen doinua? Honako jakintza hau, berenberegi adimenezkoa den arren, begiekin aldera dezakegu, arestian esan bezala, lehenik eta behin animaliak atzematen ditu, eta poliki-poliki izarrak, azkenik eguzkia atzeman arte. Hori horrela, zentzumenak batere erabili gabe, arrazoimenaz baliaturik gauzen bere baitangoa azaltzeko, ongia bere horretan zer den argitu arte, ekinaren ekinez horretaratzen denean, ulermenezko alorraren azkenera heldu da.

—Bai horixe —esan zuen.

—Eta zer? Honako bidaia hau ez al da dialektika deritzozuna?

—Baiki.

—Kateetatik askaturik —esan nuen— itzaletatik itxurazko irudietara eta sutera bihurtzea, baita haitzulotik eguzkiak argitutako lekura bihurtzea ere, adierazi ditugun ikasketen eraginpean daude. Hara ailegatzean, bere begiak ahulak direnez gero, hasieran ezin die animaliei, ez landareei, ez eguzkiari begiratu, hori dela eta, uraren azalean islatutako irudiak eta itzalak atzeman behar ditu lehenik; irudiok benetako objektuenak dira, haitzuloan ziren itxurazko irudiak ez bezala. Adierazitako zientzia multzoak eragin bera sortzen du, arimaren alderdirik onena bultzatzen baitu izakirik onena ezagut dezan; lehengo adibidearekin alderatuz gero, gorputzaren atal bikaina materiazko mundu ikusgarrian dagoenik argitsuena ikustera igoarazten duen moduan.

—Nire aldetik —esan zuen— ados nago. Hala eta guztiz ere, onartzea uko egitea bezain nekosoa izango zait. Honakook hurrengoetan ere sarri hizpide izango ditugunez gero, orain esan bezalakoa dela demagun, eta, preludioa aztertu dugun eran doinua ikertzeari ekingo diogu. Esaiguzu, bada, dialektikaren mamia zein den, zenbat mota bereizten den, bai eta zeintzuk urrapide ere dituen. Behin bide hauetatik bertaratuz gero, gure bidaia bukatutzat eman eta azkenik atseden hartu ahal izango dugula dirudi.

—Nolanahi ere, ez zara niri jarraitzeko gauza izango, Glaukon maitea —esan nuen— nire aldetik on beharrez jokatzen dudan arren. Hala, ez itxurazkoa, egiazko ongia baizik, bere horretan sumatu egingo zenuke, nik atzematen dudan ikuspegitik begiraturikoa behinik behin. Honelakoa edo bestelako ongia izango den ezbaian sartzea ez du merezi; haatik onartzekoa da ongia izan badela eta ezagutu beharrekoa, ezta?

—Nola ez?

—Prestakizun gisa landutako ikasketetan trebe denak dialektikaren bidez soilik suma dezake ongia, eta beste bide batetik ezin.

—Eta hori onartzea ere merezi du —esan zuen.

—Hona hemen inork ukatuko ez duena: dialektika bide bakarra da izate bakoitzaren zerizana sistematikoki barrundatzeko. Beste ezagutza gehienak, aldiz, gizakien iritzi eta gogoen gainean sortuak dira, sorketaz eta ekoizpenaz aritzen dira, edo gauza materialak zaintzeaz arduratzen dira. Gainerakoak, hala nola geometria eta jarraikoak, izatearen alderdiren bat antzematen duten horiek, hitzartuta ezin antzematurik, izatearekin amets egiten dute, bitarteko hipotesiak oso-osorik alde batera uzten ez dituzten arte. Batetik ezagutzaren abiapuntua zalantzagarria denean, eta bestetik bai ondorioa bai bitartekoa ezezagunak direnean, halako argudiaketak nolatan deitu ko ditugu zientzia?

—Inola ere ez —esan zuen.

14

—Hipotesiak bertan behera utzita, dialektika jatorrizko iturburura abiatzen da sendo, eta arimaren begia basatzatik polikipoliki azaleratu eta igoarazi egingo du gorantz, arestian aipatutako ikasketak bitarteko dituelarik. Ohituraz aipatu ikasketei ezagutza izena jarri diegun arren, beste izen bat beharko luke te izan, ustea baino argiagoa, eta ezagutza baino ilunagoa denari ezartzeko modukoa. Aurreko batean, pentsamendua edo arrazoizko ezagutza izena erabili izan dugu. Hala eta guztiz ere, izena dela kausa ez genuke eztabaidarik sortu beharko, gurea bezalako aparteko ikergaia aurrean dugularik.

—Ez horretan —esan zuen.

—Nahikoa da —esan zuen— aurrean bezalaxe, lehen atalari ezagutza (zientzia) izena jarriko diogu; bigarrenari pentsamendua; hirugarrenari susmoa eta irudimena laugarrenari. Azken bi atalek ustea delakoa osotzen dute, eta lehenengo biek adimena. Ustea sorketari lotzen zaio, eta adimena zerizanari.

—Hau honela, zerizana sorketarekin elkartzen da adimena ustearekin elkartzen den eran. Bai ustearen atala, bai adimenarena bitan banatzeko arrazoia, nahiz eta honetako analogia asmatu izana alde batera utziko ditugu, Glaukon, orain arte baino luzeago ezbaian gal ez gaitezen.

—Nire aldetik —esan zuen— ulertzen ditudan neurrian behinik behin, honako kontuekin ere ados nago zurekin.

—Gauza bakoitzaren izateaz ohartzen denari dialektiko deitzen al diozu? Bere baitarako edo beste inori izatea adierazteko ezindurik dagoenak ez du ezagutzarik lortu.

—Bai ba —erantzun zuen.

—Ongiarekin gauza bera gertatzen da. Arrazoimenaz baliaturik ongia zer den zehaztu eta bereizteko gauza ez denaz, eta kritika guztien gainetik igaro, eta eragozpenak argudio sendo batez zanpatuz, borrokaldian bezala ausardi handiz aurrera egiteko gauza ere ez denaz, ez al duzu esaten ez ongia bere senean, ez inongo gauza onik ezagutzen ez duenik? Ongiaren irudiren bat atzematen badu, ustearen bidetik lortuko du, eta ez ezagutzarenetik. Horrez gainera, bizitza honetan zehar igarotzean, amets besterik ez du egiten, harik eta Hadesera jaitsita lozorrotik esnatu arte.

—Bai, ala Zeus!, ozenki esango ditut gauza horiek guztiak.

—Bada, orain hitzez hezten dituzun ikasleen ardura egiatan bazenu, ez zenieke hiriaren agintea emango, ez eta kezka handiko kontuetan eskuramenik ere, zentzunezkoak ez balira.

—Ezin uka —esan zuen.

—Izan ere, galderak eta erantzunak ematen irakasten duenarekin buru-belarri jarduteko aginduko al zenieke?

—Bai horixe —esan zuen.

—Ez al duzu uste —esan nuen— dialektika gainontzeko ikasketen erpinean dugula, eta bera baino gorago jartzeko gisan ez dagoela ezer, ikasketen inguruko koska bukatutzat dugularik?

—Bai hala uste dut nik ere bai—esan zuen.

15

—Hortaz —esan nuen— oraingo honetan ikasketak nori eta nola eman adieraztea falta duzu.

—Bistan dago —esan zuen.

—Gobernatzeko hautatuek nolako izaera duten gogoratzen duzu?

—Ez, bada—esan zuen.

—Zuk zeuk pentsatu bezala, aldarte honetako izaerak hautatu behar genituen.

—Hala nola, sendoenak eta adoretsuenak aukeratu behar, baita ederrenak ere, ahal den neurrian. Gorputzaren dohain horiek izateaz gain, heziketarako jaioak behar dira izan.

—Zeintzuk dira?

—Lagun zorionekoa, ikasketarako zorroztasuna behar dute, ikastea neketsu suertatu ez dakien. Kontu egizu, zientzia abstraktuak ikasten, soinketarekin baino askoz arinago nekatzen dela arima, gorputzaren nekea ez baitu bere gain hartzen.

—Egia da —esan zuen.

—Bilatu, oroimen handikoak eta nekaezinak bilatuko ditugu, eta era guztietako lan zaletasuna dutenak. Bestela, gorputzari dagozkion lanak egiteaz gain nola onartuko dute ikasketari dagokiona egitea?

—Inork ere ez luke egingo —esan zuen— dohainez ongi hornituta egon ezik.

—Gaur gaurkoz, egiten den hutsa, filosofiari horrenbeste kalte egin diona, honetan datza, hau da, horretan aritu direnek ez diote behar beste lotsarik izan. Horretaratu direnak zintzoak behar dute izan, eta ez zantarrak.

—Nola? —esan zuen.

—Lehen lehenik —esan nuen— filosofiara hurbilduko denak lanerako gogotsua izan behar du, ez, aldiz, gauza batzuetarako saiatsu eta besteetarako ez. Ehizan, zein soinketan, zein gorputzarekin denetako lanak gogara egiten dituenean, eta ikastea, entzutea edo ikertzea bezalakoak gorrotatzen dituenean honako hau gertatu ohi da.

—Ezin argiago.

—Bada —esan nuen— gogozko gezurra, are gehiago beste norbaiten gezurra gorrotatu eta nekez onartzen badu, eta oharkabean egiten den gezurra, osterantzean, lasai asko onartzen duena, eta ezjakinean harrapatzen dutenean haserretzen ez dena, egiaren bilaketan ezegokia izango da, txerria basatzan dabilen antzera bere ezjakinean pozarren zikinduz.

—Bai noski —esan zuen.

—Zantarra eta zintzoa bereizi nahian, neurritasuna, adorea, eskuzabaltasuna eta halako bertuteei kontu hartu behar diegu. Gizabanakoa edo hiria, aurrekoa bereizten ez dakielarik, lagun edo gobernari gisa norbait hartzera behartuta dagoenean zantarra eta ezegokia izango da bere aukeraketa.

—Jakina —esan zuen— horrela da.

—Beraz, kontu handiz arituko gara. Ikasketa eta jarduketa honetarako heziko ditugunak bai gorputzez bai arimaz ongi hornituak badira, zuzenbideak ez digu ezer aurpegiratuko, eta hiria nahiz sistema politikoa salbatuko ditugu. Horretan jardungo dutenak bestelakoak badira, bestela gertatuko da, eta ondorioz filosofia are barregarriagoa bihurtuko dugu.

—Guztiz barregarria litzateke, bai horixe —esan zuen.

—Niri ere —esan nuen— zerbait barregarria gertatzen ari zait.

—Zer? —esan zuen.

—Ahaztuta nuen jolasean ginela —esan nuen— eta bortitzegi egin dudala berba. Bestetik, hitz egiten nuela, filosofiari erreparatuz, lotsagarri iraindua izan dela ohartuta haserretu naiz, eta erudunekin suminduta, hitzak gehiegi larritu ditut.

—Ez, ala Zeus! —esan zuen— ez da, ez, nik dudan iritzia.

—Lehen aukeraketan, zaharrak hautatu baditugu, bigarren aldi honetan, ez da egingarria izango. Ez dugu Solon sinetsiko esaten duenean agure batek gauza asko ikasten duela. Agurea bizkorrago arituko da lasterketan ikasketan baino. Gaztetan lan handiak eta askotarikoak burutzen dira.

—Ezin uka —esan zuen.

16

—Zenbakiei eta geometriari dagokiona, baita dialektikaren aurretik ikasi beharreko jakintza guztiak ere, umetan eman behar zaizkie ezagutzera, irakaskuntza indarrez ezarri barik.

—Zergatik?

—Ez dagoelako jakintzarik gizaki askeak morroi lez ikasi behar duenik. Izan ere, behartuta ikasitako ariketek gorputzari kalterik ez badiote egiten ere, arimari dagokionez, osterantzean, indarrez barneratzen dituen ikasgaiek ez dute iraupenik gogamenean.

—Hala da —esan zuen.

—Hortaz, ene adiskide ona, ez hezi haurrak indarrez, jolasean baizik. Honela jokatuz gero, haietariko bakoitzak zer-nolako ahalmena duen ezagutu ahal izango duzu.

—Zentzunezkoa da diozuna —erantzun zuen.

—Bestalde, gogoratuko duzunez, esan genuen zaldi gainean umeak, ikusle, gudara eraman behar ditugula, eta, arriskurik ez egotekotan bertaratu, txakurkumeen antzera odola dasta dezaten.

—Gogoratzen dut —esan zuen.

—Honelako zeregin, lan, ikasketa eta arriskuetan trebetasun apartekoa erakusten duena aukerako talde batean sartu behar dugu.

—Zein adinetan? —esan zuen.

—Bizpahiru urtetan, edo, nahitaez burutu behar duten soinketa garaia bukatzean, tartean nekeak eta logurak, ikasketaren arerioak izanik, beste edozein ariketa biziki oztopatzen baitu. Horrez gainera, norberak soinketako ariketak nola egiten dituen erakustea izango da eskatutako probetako bat, ez xumeena.

—Nola ez? —esan zuen.

—Sasoialdi horren ondoren —esan nuen— hogei urte beteta, hautatuei besteei baino ohore handiagoak eskainiko dizkiezu. Ostean, txikitan jasotako ikasketen xehetasunak batera bilduta, zientzien arteko loturak erakutsiko zaizkie, bai eta izakiaren izatea ere.

—Egiatan —esan zuen— barneratzen den jakintzen artean irauten duen bakarra da.

—Horrez gain —esan nuen— norberaren izaera dialektikoa ote den ondoen erakusten duena da. Hau da, osotasunaren ikuspegia hartzen duena dialektikoa da, eta bestela, ez.

—Zurekin bat nator —esan zuen.

—Horregatik, gainerakoei aurrea hartzeaz gain, jakintzetan ikastun eta guda nahiz bestelako jardunetan tinko direnak lehen hautatuen artean bereiziko dituzu berriro, hogeita hamar urte bete bezain laster, lehen baino ohore handiagoak eskaini eta probatzeko asmotan, inongo zentzumenik erabili gabe, dialektikaren bidez izatearen muina atzematera heltzeko gauza ote den. Hona hemen, kontu handiz egin beharreko eginkizuna.

—Zer dela eta? —galdetu zuen.

—Ez duzu ikusten —esan nuen— gaur egunean dialektikak jasaten duen kaltea norainokoa den?

—Zein? —esan zuen.

—Dialektikan aritutakoei gertatutako nahasmenari harrigarria al deritzozu eta ez al dituzu barkatzen?

—Zergatik? —esan zuen.

—Hain zuzen ere, gertatuko zaie usteko seme-alabari bezala. Alegia, itzal handiko senide kopurutsu batean atzamar puntetan hazitako gaztea, heldutakoan, usteko gurasoen seme-alaba ez dela ohartzen da, benetakoak nortzuk diren ezin aurkiturik. Ezagutu aurretik eta ostean, lausengari eta usteko gurasoekiko bere jarrera zein izango litzatekeen asmatuko al duzu? Edota nahiago al duzu nire ustea entzun?

17

—Gauzak horrela —esan zuen— uste dut usteko aita-ama eta senidekoak lausengariak baino gehiago ohoretuko dituela, eta urrialdian balira atoan lagunduko lituzke. Bestetik, haienganako lotsa handia izango luke, bai hitzez bai egitez. Azken batean, garrantzizko kontuetan bere esanera arinago jarriko litzateke, egia ezagutu gabe egon zeneko denboraldian izandako lausengariekin baino.

—Hala da —esan zuen.

—Gertatutakoaz ohartuaz batera, gurasoenganako lotsa lasatuko litzateke, lausengarienganakoa biziagotuko, eta honekiko esanekoa litzateke lehen ez bezala. Geroko bizimodua haien erara egokituko luke, eguneroko elkarbizitzan. Izaera eskuzabalekoa ez balitz, ez litzateke bere usteko gurasoez, ez senidekoez gehiagotan arduratuko.

—Bai horretan —erantzun zuen— zuk esan bezala gertatuko da. Dena den, aipatu irudia zelan egokitzen zaio dialektikari?

—Jarraiko gisara. Umetatik, bai zuzentasunaz bai jatortasunaz eredu batzuk izan ditugu, heziketa bertatik eramateko, gurasook on beharrez bete eta jarraitu ditugunak.

—Hala da.

—Honen aldean, egon, badaude atsegina ekartzeko hitza ematen duten beste jarraibide liluragarri batzuk, gure arima konbentzitu barik, lausengatzen eta bertara erakartzen saiatzen direnak, gutxieneko zentzuna eduki ezik.

—Hala dirudi.

—Eta zer? —esan nuen—. Halako gizon-emakumeari zuzenekoa zer den, galdetu eta legearen arabera ikasitakoa erantzunez gero, bere erantzuna ukatuta, berez zuzenekorik ote den dudatan jartzen bazaio, eta ohoretan dituzunekin ere ezbaian jarriz gero, nolako jokabidea izango du bere esanetara jarri behar den aldetik?

—Nahi eta ez —esan zuen— haienganako lotsarik ez esanekotasunik ez du erakutsiko.

—Beraz —esan nuen— arimak eredugarritzat hartzen ez dituen artean, eta oraindik orain egia aurkitzera ailegatu barik, zein jokabideari atxikiko zaio arima lausenguari ez bada?

—Bai horretan —esan zuen.

—Orduan, uste dudanez, ohartuko da lehen legeen esanetara buru makur zela, eta orain aurka gaiztotu dela.

—Besterik ezin.

—Hortaz —esan nuen— dialektikan hala dihardutenei gertatzen zaiena ez al da guztiz berezkoa, eta nik lehen esan bezala, ez al dute barkatzea merezi?

—Horrez gainera, haienganako errukia izatea ere bai.

—Horregatik, hogeita hamar urte ingurura heldutakoan, haienganako errukia ez izateko, zuhurtasun handiz jokatuko dugu, dialektika erakusterakoan, ezta?

—Bai horixe —esan zuen.

—Eta ez al da zuhurtasun handia dialektika gustukoa ez izatea gazte diren bitartean? Igarri duzunez, gazteak argudio ahalmena lehendabizi gozatu duenean, jolas modura erabiltzen du, han-hemen kontraesanak bilatzeko asmoz, eta nahasmena sortzen dutenek jokatu bezala, haiek ere besteen aurka egiten dute, hurbiltzen den edonori txakurkumeen antzera haginka eginez hitz bidez.

—Egiatan, hori gozamena!

—Behin jende askoren berbakunea ezeztatuz gero, bere aurka ere maiz ezeztapena jasan dutelarik, lehen zituzten uste sendoak agudo kolokan jartzen dituzte, eta horren ondorioz, gainerakoen aurrean bere burua ez ezik, filosofiari dagokion guztia ere arbuiatzen dute.

—Egia da oso —esan zuen.

—Helduak, aldiz —esan nuen— ez du ohitura txar horretan parte hartu nahi izango, aitzitik, egia ikertu nahirik eztabaidan dabilenaren antzera jardutea atseginago izango du dibertitzeko asmoz jolasean jardutea baino. Halatan jokatzen duenak denen aurrean zentzunezko jarrera agertuko du, eta filosofia desohoretu beharrean errespetagarriago bihurtuko.

—Bai horixe —esan zuen.

—Dialektika ikasiko dutenek izaeraz sendoak eta tinkoak izan behar dutela esaterakoan, zuhur aritu gara, aitzitik, egun gertatu bezala, lehen ailegatutakoak, ezertarako jarrera egokirik ez dakarrenak ez du honetan parte hartuko.

—Egia da —esan zuen.

18

—Beraz, soinketan halako bi urtez, beste ariketarik egin gabe dialektikan jo eta ke jardutea nahikoa izango al da?

—Sei ala lau urte dira diozunak? —galdetu zuen.

—Ez kezkatu —esan nuen— jar ezazu bost. Horren ostean, haitzulora jaitsiaraziko dituzu, eta derrigortuko dituzu gudaren eta gazteen eginkizunak gain har ditzaten, eta honelakoetan esperientziaren aldetik inor baino eskasagoak izan ez daitezen. Proba hauekin igarriko diezu alde guztietatiko erakargarrien aurrean tinko ala txepel aurre egiten dieten.

—Zenbateko denboraldia jarriko duzu horretarako? —esan zuen.

—Hamabost urte —erantzun nuen—. Berrogeita hamargarren urtera iritsi eta bizirik dirautenak, eta, hala ariketetan nola ikasketan alderdi guztietatik gailendu direnak azkeneraino bideratu eta dena argitan jartzen duena aurrez aurre begiratzera behartuko ditugu. Ongia bere baitan atzemandakoan, eredu gisa hartaz baliatuko dira, bai nork bere usadioak, bai hiritar bakoitzak bere kontuak, bai estatua arautzeko. Aldi gehiena filosofian emango dute, eta txanda datorkienean, zeregin politikoak bere gain hartu eta hiriaren onerako bananbanan gobernatu beharko dute ezinbestean, ez gauza ohoregarritzat harturik. Hirizaintzan bere ordeko gogoangarriak hezten buru-belarri ahaleginduz gero, bizialdi honetatik zorionekoen irletara igaroko dira. Hiriak egundoko hilobiak eraikiko dizkie, eta Apoloren esanak hala baderitzo, demonei bezala sakrifizioak egingo zaizkie, eta osterantzean, zorioneko arima eta jainkoei bezala.

—Bai ederrak —esan zuen— eskultoreak bezala irudikatu dituzun gobernariak.

—Baita andre gobernariak ere, Glaukon! —esan nuen—. Aipatutako jakingarrietan ez natzaio lotu gizonezkoei andrazkoei baino gehiago, honakook izaera egokia baldin badute.

—Zuzenagorik ez da —esan zuen— gizonezkoen eta andrazkoen artean dena berdintsu izan behar da eta.

—Eta zer? —esan nuen— aitortuko didazunez, hiriaz eta gobernuaz esan duguna ez da amets hutsala, aitzitik, egingaitza bada ere egingarria, baldin eta, egungo ohoreak mesprezagarritzat harturik, gutxiesten dituzten agintariak hirian badira, bat edo gehiago. Benetako filosofoa izanik, zuzena estimatuko dute, baita nahigarririk handien nahiz derrigorrezkoen gisa hartuko ere. Zuzenaren esanetara jarrita, estatuaren antolaketan dihardutenean hura sustatzen ahaleginduko dira.

—Nola? —esan zuen.

—Hamar urtetik gora hirian diren guztiak soroetara bidaliko ditugu —esan nuen— eta gaur-gaurko usadioetatik, gurasoek erakutsiak, beraien seme-alabak ateraraziko ditugu, lehen azaldu bezalako hiriaren ohitura eta legeen arabera hezteko. Lehen agertu dugun hiria eratzeko ez al da honakoa biderik azkarrena eta errazena? Ondorioz, estatua zorionekoa bada, hiritarrentzat ere onuratsua izango da edonondik ere.

—Bai, erabat —esan zuen—. Ene iritziz, Sokrates, nola zertuko den oso ondo azaldu duzu, inoiz gauzatzerik baldin badu.

—Honezkero —esan nuen— hiri horrekin eta bere gisako gizakiarekin ez al dugu hitz gehiegi luzatu? Argi dago, hortaz, nolakoa izan behar duen.

—Argi dago —esan zuen— zuk esan bezala, bukatu delakoan nago.